


ttipi-ttapa

1990eko Irailak 13

45. zenbakia

dohain banatzen da

Donezteben
Patxi Larretxeak
marka berria egin





BAZTAN

ALTZARIAK
zurgindegia

- ✓ Sukalde, logela, jangela eta egongelarako
mobleak
- ✓ Koltxoiak

121 errepide nazionala, 54. km
IRURITA - BAZTAN



Baserri bat salgai Legasan,
bitartekaririk gabe, eskutik eskura.
Karretera nagusitik 4km.tara, erreka bazterrean eta
mendi-mendian. Amuarrain-haztegiako egokia.
18.000m² zelai-zelaiak. Behea eta bi solairukoa.
2.000m²ko soroa. Gaztaindegia. Bidea Land-Rover-
ez. Argindarra hurbilean. Prezioa: 8.000.000 Pzta.

Informazioa:

Tfnoa: (948) 45 00 54

MODULO BAT

900 Pzta.

BI MODULO

1.800 Pzta.

HIRU MODULO

2.700 Pzta.

SEI MODULO

5.400 Pzta.

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

Zure iragarkiak Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi,
Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

zer - non

-
- 4 BEHARREZKO TELEFONOAK** Kontsultak, eritetxeak, lineako autobusak, aberiak...
- 5 AGENDA** Hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 6 IRAKURLEAK MINTZO**
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortiziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 22 ERREPORTAIA: "Arkupeak, batasunaren eredua"**
Juainas
- 24 ELKARRIZKETA: "Biktoriano Artzuaga"ri**
Patxi Larretxea
- 26 KIROLAK:**
Mattari, Antton.
- 28 OSASUNA:**
Nafarroako OMT
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Altzuguren
- 30 MERKATU TTIKIA**
- 31 DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.100 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkartea, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Goiko Argazkiak, Patxi Larretxea, Mattari eta OMTk. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortizirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

— Musika —

MADONITIS

Urtea aintzineria doa eta oraindik Madonnaren lata etzaigu bukatu, hementxe datorkigu berriz, egunkari, aldizkari, telebista eta gainontzeko komunikabide guztien bitartez neska erdi petarda hau.

Har ezazue: politasun pixka bat, sexitasun pixka bat, dantza pixka bat, abeslariatasun pixka bat, estilo pixka bat, independentzitasun pixka bat, promiskuitatetasun pixka bat, katolikotasun pixka bat, dibortziotasun pixka bat, eskandalotasun pixka bat, sexotasun pixka bat; hau dena koktelera batetan sartu, azukre gorrixta bota, ongi nahasi eta **Madonna** egina daukagu.

Gaur eguneko teknologiaren abantail guztiekin. Marketing ezin hobea.

Itxurazko neurri gehienak betetzen dituen neska. Erdi geldirik dagoen Hollywood-eko garai hobereneko emakumeen begirada nahi eta ezinak. Azken urte hauetako abeslaririk arinena izanena da ez bait ditu ez kilo ez altura aunitz. Momentu hutsak betetzeko ez dago gaizki edo otordu garaietan telebistan ikusteko.

Udazken hontako lata "Dick Tracy" filma dugu. Warren Beatty eta Madonna edo alderantziz. Prest egon zaitezte.

MARIANO



Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe594300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren594183

Sunbilla594283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea251500

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz594242/594342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzaran515018

HIRUGARREN ADINARENAKO

ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero594335/594336

▼ **Deialdiak**

► **Arantzan**, irailaren 13an Arantzako Euskara Batzordearen bilera

► **Etxalarren**, irailaren 21an Etxalarko Euskara Batzordearen bilera arratsaldeko 7,30etan.

► **Arantzan**, irailaren 20an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera

► **Arantzan**, irailaren 27an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera arratsaldeko 7,30etan.

▼ **Bestak**

► **Elbeten**, irailaren 13an, makalaren altxatzearekin hasiko dira herriko bestak. Baztan-zopak, dantzaldiak eta...

▼ **Ibilaldiak**

► **AKELARRE-90 ekitaldien barnean** irailaren 16an, **Larun** menditontorrera ibilaldi bat egingen da. Bi bide nagusi izanen dira: Sara-Azkain aldetik bata eta Beratik bertzea.

Larun gainean Zardina eta bazkalondoa alaitzeko trikitixak.

▼ **Kirolak**

► **Amaiurren**, irailaren 22an arratsaldeko 8etan eta Pilota lekuan, Baztan-Bidasoa-Malerrekako Herri Kirol Txapelketaren topaketa.

Jokoan ariko dira Amaiur, Sunbilla, Arizkun eta Narbateko Herri Kirol taldeak.

▼ **Kontzertuak**

► **Beran**, AKELARRE-90 ekitaldien barnean, irailaren 22an arratseko 10,30etan OSKO-RRI eta IZANen kontzertuak Altzateko pilotaplan. Sarrera 500 pzt.

▼ **Antzerkia**

► **Beran**, AKELARRE-90 ekitaldien barnean, irailaren 22an MASKARADA

▼ **Ikastaroak**

► **EPak** antolaturik, Leitza, Goizueta, Malerrekak, Baztan eta Bortzirietan honako hauek eskeintzen dira: Jostura, Informatika, Hizkuntzak, Eskulangintza, Ileapainketa-Estetika, Nekazaritza, Teknologia berriak, Sukaldaritza, Administrazioa, e.a.

Baldintzak: 16 urte baino gehiago izatea, 15eko taldea elkartzea, 1.000 edo 3.000 pztatako matrikula ordaintzea.

Izenematea: Irailaren 15a baino lehen.

Tokia: Herriko Etxetan edo 630411 tfnora deituz.

▼ **Botikak**

► **Irailaren 15-16ean**, Lesaka eta F. Iturralde (Elizondo).

► **Irailaren 22-23an**, Etxalar eta F. Lezaun (Elizondo).



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Agusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA



★ **KIXKUR** ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

EUSKARA EDO GAZTELERA

S a i l
hone-
t a n
ikusi

dudanez, edozein gauzetaz idatz daiteke eta nik proposamen bat egin nahi nuke.

"Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik eta dakitenek hitzegiten ez dutelako". Esaldi honi, ez diote kasu haundirik egiten, ez dakitenak ikasten ari dira, bai, baina dakitenak ez dute hitzegiten.

Gazteleraz hitzeginez gero, inportanteagoa egiten du jendeak bere burua, baina ez, ze arraio, Madrilan erdian bizi

al gara ba? Ez al gara Euskal Herrian bizi? Ez gaitezen haurrak izan, gure herriaren hizkuntzari ez diogu galtzen utzi behar, hezur eta odol EUSKALDUN garbiak gara baina horretarako demostratu egin behar dugu, euskaraz hitzeginaz eta ez dakitenei pixkanaka-pixkanaka erakutsiaz, etxean, lagunekin, ikastoletan... euskaraz hitzegin dezagun.

Gure hizkuntz zaharra hainbat eta hainbat urteetan bizirik egon ondoren nola utziko dugu bada bazterrera!

Zuen eskuzabala ikusirik, denen artean euskara aurrera ate-

ratzen saiatuko gara. Eskerrik asko aldeztu aurretik.



Leitzako euskaldun bat
44.625.383

ITURENGO ALKATEAREN ADIERAZPENEN INGURUAN

Aintzineko egun batean «Diario de Navarra» izeneko periodikua eskuartearen nuelarik Iturengo alkateari egindako elkarrizketa xelebre bat leitzeko aukera izan nuen. Alkateak egiten zituen adierazpenak leizutatu aho bete hortzekin gelditu nintzen, ondoko xelebrekeria hau bezalatsukoak aipatzen bait zituen: ... "mira, yo he nacido en un pueblo y me gusta vivir en él. Otra cosa es que tenga mis conocimientos del

grado muy superior..."

Hori leitzetik akitu nuenean erran zahar hura etorri zitzaidan burura: US-TEAK ERDIAK HUTSAK ETA BERTZE ERDIAK USTELAK.

Ongi aski bait dakigu pertsonaren ezagupen edo jakinduri maila ez dela norberarena lau haitzeta zabalduz adierazten.

Herritar ASTAKIRTEN guztien izenean, agur beroak



A. Erasun
72.665.764

IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA

FONDA XATURETXEA

Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa.: 45 00 14
BEINTZA - LABAIEN

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA

Lara

MUSIKA DENDA
ZERBITZU
BERRIAK

- ✓ Ekipoen alokairua
- ✓ Disko-bar, diskoteka, e.a. ekipoak
- ✓ Soinu ekipo guztiak orokorrean

San Esteban 37 - Tfnoa: 63 10 59 - BERA



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

IV. Akelarrea martxan: "Euskarak batzen gaitu"

16an Larunera eta 22an ekitaldi nagusia

Laugarren urtera ailegatu da Bortziria eta Malerreka euskaltegiak bultzaturiko jai eta erreibindikazio ekitaldi hau. Euskaltegi hau gauregun ez AEK-n baizik IKA koordinakundean egoteak eragin du izenaren aldateta ttiki hau, lehen Aekelarre deitzen bait zen. Aipatzekoa da Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen babespean antolatzen dela aurtien Akelarre jaialdia.

Ekitaldiaren helburuak lau urte hauetan zehar mantendu diren berberak dira: bereizten gaituen mugaren gainetik, bi aldeetako euskaldunen harremanak sendotzea, herri bat gara eta gure batasunaren muina euskara dela aldarrikatzea. Hain zuzen ere, aurtengo Akelarrearen lema horixe da: "Euskarak batzen gaitu".

Jai honen antolaketa lanetan Iparalde eta Hegoaldeko pertsona eta elkarte aunitzek hartzen dute parte, herri ezberdinetakoak: Azkain, Sara, Zugarramurdi, Irun, Hondarribia, Bortziria, Malerreka etab., lankidetzaz honi urtean zehar ere jarraipena eman nahi zaiolarik.

Iaz bezala aurtien ere hiru egun ezberdinetan garatuko dira Akela-



Iaz mugaren bi aldeetako 100 bat lagun bildu ziren Larungo mugarran

rren ekitaldiak: Irailaren 9, 16 eta 22an. Aldizkari hau argitara orduko ospatua izanen da lehenbizikoa, Irailaren 9ko bizikleta ibilaldia alegia, Hendaiatik abiatu eta Beratik barrena Sararaino ailegatuz.

Datorren igandean, Irailak 16, izanen da Akelarrearen ospakizunik "larrekoena" Bera, Sara eta bertze zenbait lekutatik abiatu eta Larun mendi tontorrean, mugarriaren inguruan, bat eginez. Bertan xardin jatea

eginen da, trikitixak lagunduko duen giroa berotzeko.

Akelarre eguna edo festaren ekitaldirik nagusia Irailaren 22an ospatuko da Beran egitarau honekin: arratsalde Txaranga eta Erraldoiak ibiliko dira herrian zehar, 9,30etan Herri afaria izanen da bertsolari eta kantariekin, ondoren Oskorri taldea, Maskarada antzerkia eta Izan taldearekin berbena.

PATXI PETRIENA



BOAN TAILERRA
 CITROËN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

«U S O A»
NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESKA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91



Taberna JABAUTIA 33 - BERRIA Tfnoa: 22 14 40

SAROBÉ okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

Drogeria MOLINERO



Paper pintatuak
Pinturak
Moketak
Drogeria

Tfnoa: 63 02 40
Eztegara 19
BERA



GOZOTEGI - JAKONE




Itzea 3, 630786 - **BERA**

BIDASOA

TAILERRA

Bidasoa 99

Tfnoa: 630 188 - **BERA**



GOIZUETA KIROLAK

Kirolak
Mendirako artikuluak

Beheko Plaza 10 **LESAKA**

CARE Saneamenduak

Mobleak eta bainurako tresnak
Iturgintza eta kalefakzioa

Legia 34 — **BERA** — Tfnoa: 63 04 87

BATZOKI

JATETXEA
OSTATUA

Tfnoa.: 63 79 31

Lesaka



ZALAIN

KARROZERIAK

TXAPA ETA PINTURA

Tfnoa: 630 188 **BERA**



EZKONTZETARAKO KANPAINA

Iraila eta Urrian

Lore eskakizunak egiten dituztenentzako
opari bat izanen da

Koronak, ezkontza lore sortak eta
konbidatuei emateko oparitxoak
Aurrekontuak, konpromisorik gabe egiten dira

Lore errepartuak ortziralero egiten dira
Baztan - Malerrekan
Larunbat arratsaldeetan irekita egonen da

Bittiria karrika, Tfnoa: 63 74 94 - **LESAKA**

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - **BERA** - Tfnoa.: 63 07 63



OSASUN-DENDA

BELARRAK-DIETETIKA
EDERGAI NATURALAK

- ✓ Mediku naturista
- ✓ Reflejo terapia
- ✓ Dieta mota guztiak
- ✓ Kosmetika tratantea
- ✓ Alternatiba osasungarria —kimikarik gabea—

Zatoz konfiantza osoarekin

Bittiria, 6 Tfnoa: 637410 - **LESAKA**

Eskualdeko zabortegiaren lanak hastear

Urte berriaren etorrerarekin zabalduko da



Gaur egungo zabortegitik 70metrotara egingen da zabortegi berria



Hoiako ontziak jarriko dira herri guzietan zaborrak biltzeko

ROMAN HARRIBILAGA

Irailean emanen zaie hasiera Bortzirietako hiri hondakinak pilatzeko egingen den zabortegirako lanak. "Chantre S.A." izanen da egilea 62.235.634 pezeta (BEZa barne) aurrekontuaren aldera eta urte honen amaierarako bukatu beharko ditu, datorren urtarilaren lerako martxan jarri nahi baita.

KOKAPENA ETA EZAUGARRIAK

"Hibaia, S.A."k idatzitako txostenean oinarrituz, gaureragun Berako zabortegia aurkitzen den tokian, Ibaringo lepotik Intzolako Bentarat daraman bidetik hurbil eta 60m. aintzinerago kokatuko da zabortegi berria eta 38.000m² tutako

azalera izanen du.

Sarbidea, Ibaringo gainera ailegatu baino lehen eskuin aldera hartzen den bide batetik dauka, 600m inguruko pista ibiliz.

Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako hondakinak bilduko dituen zabortegi honen bizia 20 urtetakoa izanen da.

ZABORREN BILKETA

Hondakina-
ren bilketa,
horretarako
jarriko diren berde koloreko ontzi batzutan egingen da; 46 ontzi 1.000 litrokoak; 243, 800ekoak eta 30, 243koak; hauetaz gain, beira edo kristala biltzeko ontziak jarriko dira, gero, zabortegian kixkaliko direnak. Garraioa, bi kamioiren bitar-

tez egingen da, txofer eta peoi banaz hornituak.

Bertzalde, bilketa arautuko duen ordenantza ere idatzia izan da. Bertan agertzen denez, zabor guztiak bilduko dira, klinika eta osasundegietako hondakin kutsatuak ezik, ezta erradioaktibitatea daukatenak. Industri hondakinak berriz, kasuz-kasu erabakiko da nora eraman. Etxeko tresna eta trankulu zaharrak biltzeko, Mankomunitateak debaldoko zerbitzua jarriko du.


Datorren urterako aurrekontua 115.026.236koa da. Langilegoaren soldatez gain, ibilgailu, ordenadore eta bertze moztetako gaien erosketa sartzen delarik horretan.

Illekuetako bestak

Irailaren 15ean, larunbata, eguerdiko 12etan botako den altxaferuarekin hasiko dira. Arratsaldeko 4etan, "Matzada Saria"ren XXIII. Tiro Txapelketa, parte hartu ahal izateko, 5'15ak baino lehen eman beharko dira izenak. 5,30etan, C.C.Beratarak antolatutako "Baztan-Malerreka-Bidasoa"ren VIII. Txapelketa. 7,30etan Gure Txokoa Elkarteko dantzarien saioa. Arratseko 10,30etan suzko zezena eta segidan, goizeko 3ak arte, dantzaldia ITXASO taldearekin. Igande goizeko 11etan auzoan meza. 12etan haurrendako jokoak. 2,30etan herri bazkaria. Arratsaldean aizkolariak eta musika.

LESAKA

1990-91 ikastaroan 37 haur guttiago ibiliko dira eskoletan



Irain Eskola Publikoa



Tantirumairu Ikastola

M.K.T.

Joan den urtean 351 haur ibili baldin baziren ere Lesakan ditugun bi eskoletan, aurtengoan 314 joanen dira eskoletara, azken urte hauetan leku guztietan gertatzen den bezala haur kopurua jeisten ari da.

Irain Eskola Publikoan

198 haur daude matrikulatorik lehen aldiz matrikulatzen direlarik 9, horietatik 7k D eredua jarraituko dute eta 2k A eredua.

Tantirumairu ikastolan berriz, 116 haur izanen dituzte aurtengoan, horietatik 8 lehen aldiz matrikultuak.

Datu hauetatik Nafa-

roako bertze hainbat eskoletan bezala bi gauza atera daitezke: haurren kopurua jeisten ari dela eta lehen aldiz matrikulatzen diren haurren gurasoak nahiago dutela euskaraz izatea, erdaraz baino. Inguru honetan Euskara Mankomunitateak matrikulaketa garaian egin zuen

kanpainak eragina izan du, agian.

Bertzalde Tantirumairu ikastolak ikastaro berria Otxogorrienean berritzen ari ziren eraikuntzan hasi nahi bazuten ere, betiko lokaletan hasi beharko du, oraindik obra erabat bukatu gabe dagoelako.

ETXALAR

Industrialdea Arrakoitz aldean

PELLO APEZETXEA

Hori da Udalaren asmoa: ehun mila metrotako luze-zabaleko eremua industrialde bihurtzea. Iruñea-Irun errepide (karrete-
ra) ondoan egotea, eta inguruan kalte haundirik

eginen ez duelako ustea izan dira, asmo horren aldeko arrazoiak, baita leku zelaitsua urria delako ere Bidasoa inguru honetan, Alkaiaga kenduz gero. Horrela idatzi dio Udalak Nafarroako Gobernuari. Orain bada, beronen esku


dago afera, beraren onepena beharrezkoa denez. Dena den, ez da oraingoa Arrakoitz ondoan industrialdea antolatzeke asmoa, duela urte pare bat ere eskatu bait zuen Udalak gauza bera.

Amuarrainak zaindu nahi

Iriondoa eta Antsolokoetako presen arteko erreka zatia "debekatua" egon da urte batzuz, ezin

(bertze aldean segitzen du)





Irailaren 9an zabaldu zen Landagain izena duen eskola berria.

zelarik amuarrainik bertan harrapatu. Debekuaren denbora akautu eta libre gelditzean, zera eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernari: arrantza debekatua egon dadila aintzinarantzean ere, eta gordelekuak burutu ditzala amuarrainentzat, lehen aipatutako erreka zatian, erreka eta bere bizilagunak zain-

tzen lagunduko duela-koan.

Jatetxe berria

Uda dela eta kanpotar aunitz igarotzen da Etxalarrren, udazkenean berriz hemengo usategi bereziak ikusi nahiak eta ehizak ekartzen du jendea. Eta urte osoan ere, gero eta gehiago. Horrela bada, jatetxe berria Inarretako



Ibilaldietan, 12-22 lagunekoko gazte taldeak parte hartu ohi dute.

Salaberrian ireki dute.

Menditarra ibilaldiak hastear

Irailaren 23an hasiko da ibilaldi hauen hirugarren denboraldia. Ibilaldien helburua, Etxalarko alderdi, baserri eta mendien izenak haurrei ezagutaraztea da. Banaz bertze, hilean bi ateraldi egitea dago programatua.

Aurten, Elordi, Mendi-karri, Arrixturi eta Azkua alderat joan asmo da. Ordutegia, 9,30etatik 1,30etara luzatzen da normalean baina baliteke aurten egun osoko ibilaldiren bat antolatzea. Lehendabiziko urtean Ainhoa Arburua eta bigarrean J.M. Arburua "Xuxi" izan dira arduradunak.

IGANTZI

Pilota txapelketa haurrentzat

OSKAR TXOPERENA

Bukatu zen azken asteetan haurrek jokaturako pilota txapelketa. Antolatzailerik erran digutenez izugarri gauza politak ikusi omen dira jokaturako partidutan eta etorkizuna, bide honetatik jarraituz gero, ziurtatua omen dago Igantzin.

Dena den, denak hagitx ongi jokatu arren garaile batzu izaten dira txapelketa guztietan.

Hauexek izan ziren finalistik:

Nesketan: Itziar Mitxelena-Izaskun Sein (garaileak), Olatz Retegi-Nagore Txoperena (bigarrenak); **Mutikoak (8 urte):** Mikel Urtxegi-Joseba Unanue (garaileak), Urko Sainz-Xabier Almandoz (bigarrenak); **Mutikoak (10 urte):** Sebastian Antxordoki-Iñigo Telletxea (G), Guillermo Antxordoki-Xabier Sein

(B); **Mutilak (12 urte):** Manuel Telletxea-Xabier Zelaia (G), Julen Txoperena-Patxi Irazoki (B).

Pala txapelketa ere bukatu

Duela bizpahiru aste ere Pala txapelketa bukatu zen. Partehartzaileak helduxeagoak ziren eta partidu hagitx interesgarriak ikusi dira baita. Aintzineko batetan partaideen zerrenda paratzen bagenuen honetan, lau lehen-

dabizikoak aipatuko ditugu. Hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke Joxe Ramon Iriberekoa eta Marino Arrozbidekoa galdu egin zuten Miguel Angel eta Patxi Zamunbordakoen kontra.

Finalean aldiz, izugarriko partidua ikusi ahal izan zen, tantu bakar batez erabaki zen eta. Iñaki Ige-larkoa eta Jexux Mari

(bertze aldean segitzen du)



Garkoak irabazi zuten finala Miguel Angel Argatagariakoa eta Jabier Pedunekoaren kontra.

Ondotik sari banaketa eta ohizko afaria izandu ziren hagitz giro onarekin.

Komunalen arazoari buruz

Hasiak dira dagoeneko Udalaren eta terrenoen jabeen arteko bilerak "Convenio transaccional" delakoa firmatzeko. Jabeak banaka deitzen dira eta bakoitzak atera beharko ditu komeni zaionaren kontuak. Epea azaroaren hasieran bukatzen da.

Depuradora berria

Herriko Etxean dago



eraikuntza berri honen proiektua ikusi nahi duenarentzat. Depuradora lozango erreka inguruan egingen da eta herriko saneamendu sarearen ur-

zikinak garbituko ditu Latsa erreka bota baino lehen. Obra hau ez zaio sosik ere kostatzen herriari baina gero saneamenduarengatik kobratzen den

zerga edo inpuesto hori «Nilsa» eraikitzaileak hartuko du. Ingurugiroaren onerako izan dadila.

ARANTZA

Jendea erruz aurtengo Amabirjinetan

JON LARRETXE

Aspaldiko urtetan izan dugun jendetzarik haundiena izan dugu aurtengo bestetan. Eguraldiak lagundurik edo, egunero giro ederra sortzen zen. Goizero, zortzietan edo bederatzietan jende mordo aurki zitekeen karriketan oraindik erretiratu gabe.

Ikuskizunak ere arrakastatsuak: Aizkora apostuan Mindegia eta Larretxeak, Arrospide eta Ugarteburu garaitu zuten. Herriko pilota txapelketan bigarren urtez, Patxi Lukanbio eta Patxi Ordokik



osaturiko bikotea atera zen txapeldun.

Herri bazkarian 110 lagun bildu ziren, trikitilariak eta Lizaso eta Murua bertsolariak giroa alaitu

zutelarik.

Bainan eguraldi onaren ondotik ekaitza etortzen omen da eta jakina, ezin beti bestetan ibili. Gazte- txoak eskolara, baserrita-

rrak irazpattara eta bakoitza bere aferatarara.

Ehiztariak ere hasiak dira urrirako prestatzen baina aurtengoan... ezusteko galanta gertatu zaie. Artikutzako egurrez baliatzen ari zirela, guardak denuntziatu egin omen ditu eta hauek eta bertze bakarren batek eginiko kalteak kobratu nahi omen dizkie.

Arraindegia

Badirudi laister arraindegia izanen dugula herrian. Izan ere, Udalak baimena eman dio V. Arozenak arraindegia irekitzeko eginiko eskaerari.

Aurtitz eta Lasagan argindar sare berriaren lanak hasi

IBAN ISASI

Dagoeneko hasiak dira Aurtitzen karriketako argien eta etxeetarako argindarren instalazioak egiten. Aurrekontu ezberdinek aztertu ondoren, "Electricidad Fija, S.A." enpresak egingen ditu lanak. Honek aurkeztutakoaren arabera, lur azpitik sartzea eta argi indarra transformadoreari dagokionez, 44.800.350 pztak kostako da. Argi sarearen instalazioa eta karriketako argiek berriz, 17.975.620 pztak.

Bertalde eta lan hauek egiteko Udalak ematen duen denborari dagokionez, Lasaga eta Aurtitzen urte honetan bukatzeko eta Iturenerako datorren urterarte.



Lasaga eta Aurtitz auzoetan auzolanetan dabilta

Lan guzi hauen zuzendariak, Jose Angel Larunbe eta Jose Luis Arzoz jaunak izanen dira.

Laguntza Nafarroa Oinez-entzat

Udalak uztailaren 13an izan zuen bileran, Nafarroa

Oinez-entzat 15.000 pztatako laguntza ematea erabaki zuen.

Aurtegoan, urriaren 14ean ospatuko da "Ezina ekinez eginga" lemapean.

Barnetegia amaitu

Uztailaren bat eta abuz-

tuan bi dira, euskara ikas-terko asmotan Iturenen egon diren taldeak.

Lehendabiziko bi taldeetan 30 - 40ren bat lagun egon ziren eta azkenekoan, 15en bat.

ZUBIETA

JUAINAS

Abuztukoa hilabete bete izan da; fiestak, obrak eta erabakiak egin eta hartu bait dira.

Fiestak... Ui-ui-ui... afera zaila, fiestak eta ferriak bizitzeko bait dira, ez kontatzeko. Programa, normala. Kriston arrakasta lortu zuena Herri Kiro-

larena izan zen, hainbeste, ondarreko egunean neskak ere animatu zirela. Izan ziren, nola ez, anuntziatu eta ez eginiko gauzak, urdaizabalkako txapelketa, herri afaria... Beranduago egin zirenak (txontxongiloa) ...eta giroak sortarazi zituenak, apostu eta erresistentzi fiestak izan bait ziren. Aizkorak

eta motozerrak nahiko lan izan zuten, gorputzak zer esanik ez! Gauero gaupasa, goizeko diana, eguerdiro gaupasakoak bazkaltzera etxeratu ezinik,... Zubietako etxe-koandreak erdisantak ez badira, osoak izanen!

Musikeruekin bere tirabirak egon ziren: 1.- Kioskoarena zela eta ez

zela beti berandu hasten zirelako; 2.- Izan-ekoek ekipo guzia galdu zuten ostiralean, Bilbo ondoko Zubietaren batean agertu zelarik. Egonduraren bestalde, asto baten inguruko bataila eta nork daki horren ostikoz ala... musike-


(bertze aldean segitzen du)



ro baten bazkalondoko desmaia: Errandoneko komunean ordu erdi bat bota zuen ezin ateriz, lagunak kanpotik deika zirela... Enpin, enpin!

Ez pentsa dena den, juerga giroa, luzatzeko beharra, betiko bronkisten afera soila izan zenik, ez... igandea ailegatu zen, malda beherarako pentsatutako gaua... Bixenteren trikitixarekin nahikoa zela... bai zera! Plaza inguru guzia jendez betea zegoen, denak dantzarako prest... Hauxe duk, hauxe, gure destino petrala! Eskerrak Pauloren ekipoa-ri!

Astelehen goiza dugu, Zazpiterdiak... Brumm Trak, eta soina je guztia!



Astelehen goizean, normalidadearen hasiera eta fiestaren bukaera bereiztea zaila egin zen



Frontoia konpontzen ari zirenak egun bat aurreratu dute berrastea... Plaza inguruko juergisten meka-guenak eta desesperazioak... patatak atetzen egondu omen ziren ere.

Normalidadearen hasiera eta fiestaren bukaera bereizterik zaila egin zen.

Abuztuan, batzarre eta botazioa ere egin dira, argiaren linea Iberduerori ematea erabakitzeke. Ba-

tzarrean agertu zenez, Iberduerori entregatzearen aldekoek irabazi zuten 112 botorekin. Kontra 28 boto, zurian 2 eta gaizki eginak 3.

NARBARTE

Karreteraren egoera eta ur eskasiarengatik haserrea

TXEMA ALDABE

Bestetan, abuztuaren 23an hain zuzen, Kontzeju honetako presidenteak deiturik eta Junta ordezkatzuz narbartearrek ordu erdi batez moztu zuten Iruñea-Irun karretera. Bide honetan ibiltzen den auto pilarekin, pentsa zenbaterainoko ataskoa egin zen!

Ekintza honen helburua zera zen: gaur egun Narbartek sufritzen dituen bi prolema haundienei konponbidea ematea lehen bait lehen. Bata, karreteran paratu dituzten bandak



kentzearena da, ez bait dute soinu eta etxebizitzak hondatu bertzerik egiten. Soluzioa semaforoak jar-

tzea edo bariantea egitea izanen litzateke. Bertze eskaera, ur eskasiarena da. Amaia eta Gorriti ur depo-

sitoetatik hartzen duten ura guti denez, egunero

(bertze aldean segitzen du)



dituzte ur mozketak. Bertzalde erran behar da 1989-91 Hirurteko Planean kontzeju honek urhartze berri eta daudenen hobekuntza eskatu ziola Nafarroako Gobernuari baina honek, azkeneko eskaria bakarrik onartu eta subentzionatu du. Eskatu

zitzaion ere Bertitzen dagoen iturri batetik ura hartzea baina hau galera-zia izan zen.

Orain dela guti Gobernuako teknikoek bisita izan ondoren, hauek, Zeberia kanaletik ura hartzea proposatu zuten. Erantzun hau ez da jendearen gogo-

koa izan, jakina baita, ur hori ez dela batere garbia.

Gauzak horrela, orain iturri berriak ikusi eta bideratzeko moduak pentsatzen ari dira: errate baterako Iturriotz eta Oieregikoak. Hori bai, Nafarroako Gobernuak ordainduko duelakoan daude.

Nolanahi ere, aipatu behar da bide mozketak hori egin baino lehen nartartearrek saiatu direla arazo hau konpontzen bilerak eta idatzien bitartez. Azkenik, Gobernuak kasurik egiten ez zuela ikusirik, erabaki hori hartu zuten.

SUNBILLA

Joan ziren bestak... akitu dira oporrak


Eskolak eta ikastolak ikasturtea hasi dute

PATXI PETRIRENA

Aurtengo Santiburzioak ere joan ziren, eta lehenbaitlehen argipen bat egin nahi genuke. Izan ere, herrietako besten programak zekarzkin *ttipi-ttapan* ez zen Sunbillakorik agertzen (ezta Leitza-korik ere) hasiera batean beranduago banatuko zela pentsatzen zelako eta ordurako bestak pasatuak izanen zirelako. Baina azkenean gauzak aintzindu egin ziren eta ...

Bestetako txapelketak

Besta egunetan eman zitzaion akabila herriko pilota txapelketari (pale-taz, gomazko pilotarekin), hamaika bikotek parte hartu zutelarik bi taldetan banaturik. A taldean txapeldunak Vidal eta Juanjo Ibarra anaiak izan ziren finalean Esteban Maritxalar eta Alfredo Irigoienari irabazi ondoren, B tal-



Bestetan indar erakusketa polita eskeini zuten mutiko hauek arpanean

dean, berriz, Clemente Iriarte eta Patxi Bazterrika txapeldun eta Paulino Irazoki eta Faustino Mariezkurrena bigarren.

Musean, berrogeitamarren bat bikotek hartu zuten parte eta irabazleak Jose Luis Arretxea eta Jose Ignazio Zubieta, finalean Jaime eta Jose Antonio Iriarteri irabaziz.

Plater tiraketan Juan

Migel Urrozek irabazi zuen.

Aipagarria da Juanjo Ibarra eta Esteban Maritxalarrek irabazi zutela Amabirjin egunean Bidasoako paleta txapelketa, finalean eratsundarrei gailenduz.

Ikasturte hasiera

Eskoletako obrak eragozten ez badu, Irailaren 10ean emanen zaio ikas-

turteari hasiera eskolan, eskolaurretik hasi (4 urte) eta seigarren mailara bitarteko 64 ikslerekin, eta ikastolan, ama-eskolako (hiru urte) hamabortzen bat haurrekin.

Auzolanak

Herriko bertze zenbait lan lehen egin ziren bezala, orain Indinabaita eta Garaikoborda bitarteko pareta berrituxe da.


BAZTAN

Xorroxin Irratia behin betiko emisio baimenaren zai

Elizondorako aurkeztu diren 9 eskarietatik 8 kanpokoak

MAÑONE

Nafarroako Gobernuak berriki onartutakoaren arabera, Nafarroa osoan banatuko diren 7 emisio baimenetara aurkeztu diren 32 proposamenetatik 27 onartuak izan dira. Horien artean, Elizondon jartzeko eman nahi duten baimen bakarrerako 9 proiektu aurkeztu dira, Xorroxin Irratia eta bertze 8, azken hauek kanpokoak.



Xorroxin irratia

XORROXIN: BERTAKOA EUSKALDUNA

Xorroxin Irratiak aurkeztutako proposamenaz aparte, "Antena 3", "FM Nervión, S.A.", "Grupo Universal de Emisoras Radio Amnecer", "Información por Ondas, S.A.", "Promotora de TV y Radio", "Radio Estudio, S.A.", "Radio Popular, S.A." eta "Radio-difusión Navarra, S.L." dira Elizondon FM irratiak jarri nahi dutenak. Hau da, 9 eskari baimen bakar batendako.

Xorroxin Irratiak emisio baimen hori lortu ahal izateko aurkeztu zuen proiektuan agertzen denez, 10 urte luzez bildutako esperientzia eta denbora horretan egindako lana-

ren ezaugarriak aipatzen ditu. Baita etorkizunerako aurrikusita dauzkan programazio, egitura eta baliabide tekniko eta humanoen hobetzearen premia eta garrantzia, irrati profesional, ireki eta plurala lortzeko bidean.

IREKIA PLURALA

Xorroxin Irratiak bere programazio osoa euskaraz egiten du, eskualdeko 26.438 biztanletik 23.100ek euskaldunak direlako. Bertzalde, irrati ireki eta plurala nahi du izan; sektore guztiei zabaldua, aisia edo denbora libre kontutan hartu eta kultur taldeei laguntzeko prest dagoena.

PROGRAMAZIOA AURREKONTUAK

Programazio ugaria eskeini nahi du Xorroxinek: informatiboak, mahai inguruak, musika, kirola, umorea, hezkuntza... eta abarrez hornitua. Bertzalde, gaur egungo egitura ere, egokitze asmoa dute; teknikoki, 20 orduko dedikazioa izanen luketen 6 lagun jarritz eta herrietako korrespontsalak gehituz. Guzi horretarako, 10.100.000 pezetatiko aurrekontua daukate.

Aipatu azkenik, Baztan eta Malerreka aparte Bortzirietan ere entzuna izateko ahaleginak egiten hasiko direla denbora laburrean.

W ttipi-flash

Amaiurko artzai-zakurren lehiaketa

Klasifikazioa: Lehen. San Mixel Bidart "Labrit" zakurrarekin, bigarrena Felix Irigoien "Kubino" zakurrarekin eta hirugarrena Patxi Etxeberria "Lagun"ekin. Erran beharra dago, azken biak amaiurtarrak direla.

Telefono zentral eta zenbaki berriak Arizkun

384 linea izanen ditu, 587XXX eta 589XXX tfno. zenbakiak hemendik aintzinerara 453XXX zenbakiarekin hasiko dira. Zentru berri honek Azpili-kuetako herria, bere bi auzo diren Apaioa eta Arribia, Arizkun, Amaiur eta Erratzuko eskariak beteko ditu.

Elbeteko bestak

Irailaren 13an, gaueko 12etan, makala jarriko da Elbeteko plazan urtero bezala. Gero Baztan-zopak, dantzaldiak eta zenbait ikuskizun.

800m² desjabetuko Oronotz-Mugairin

Horrela erabaki du Nafarroako Gobernuak, Oronotz-Mugairi-ko kanposantua 800m²etan zabaltzeko.

Belaietan lehenik eta artoetan gero, arrak bar-bar-bar

MARGARI eta KORO

Azkeneko bi hilabete hauetan gure nekazariak kezkatuak ibilki dira eta arrazoinarekin: aurten inoiz baino goizago belaietan arrak agertu direlako. Bertze urteetan ere agertzen baziren ia abuztu azken aldean izaten zen eta kalte guti egiten zuten. Aurten berriz, uztailaren lehenean belai aunitz kasatu dituzte, azkenean, belai faltan artoan ere sartu dira eta ia "el kolmo". Izan dira batzuk artoa burutzero utzi gabe, arren beldurrez, bildu egin dutenak. Hunen kontrako erremedioak ba omen dira bainan, edo egun gutitako efektuarekin edo bertez naz arras karestiak.

Ipar aldetik heldu omen dira, eta ar bat, bakarra, polita balin bada (halako xixari berde ttar bat) denak multzoan dire-



Nazio Apeategiaren goxategian, haurrek, badute non jostetan ari

larik beldugarriak dira, ematen du mise edo oihal haundi bat lurrean hedatua bar-bar-bar harat eta hunat ibilki, deusek gelditzen ahal ez duena gainera.

Zaborrontziak

Abuztuaren erditik

hunat baditugu herrian "kontenedoreak" edo basura biltzeko ontzi haundi batzuk. Diferentzia ederra da, alde batetik orain batera molestiarik gabe hortxe, etxe ondoan, botatzen ahal dugulako eta lehen berriz "Bi-bordataraino"

joan behar ginuen: gero bertze aldetik basura botatzen zen tokia ez baitzen batere elegantea: noizbehinka su ematen zitzaion bainan hala ere eta karretera ondoan izatean, zikin-keri aunitz barreiatzen zen inguruetan. Orain seguras-ki kexu izanen direnak Faxio-ren zerriak izanen dira.

Denetara 10 zaborrontzi paratu dituzte herrian eta orain udan (uztaila eta abuztuaren) egunero bilduko dituzte (larunbata eta igandetan ezik), gainerako hilabeteetan, astelehen eta ortziraletan.

Hau posible izan da Udalak kontratu bat egin duelako "Zibon" elkar-tearekin (Sara, Ainhoa eta Senpereko herrien artean eginiko elkarteak). Hauek bildu eta Donibane-ko karretera zaharrean den zaborte-ki kontrolatu batera botatzen dituzte.

JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Esquisarri
jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEUAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO

ARROPA DENDA

FANTXIKE
MERCERIA
JAIME URRUTIA, 24
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eskia itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

LEITZA



ANTTON

TTIPI-TTAPA hau zuen eskutara ailegatu orduko, eskolak hasita egonen dira. Eta aurten, Leitzan, eskola bat bakarra izanen da denontzat. Ikastolak ez bait ditu ateak irikiko. Uda hontan, Leitzeko "Mikel Deuna" ikastola itxi bait da.

Ez jarraitzeko erabakia hartu zuen guraso batzarrek, zortzi botoen aldearekin. Baina, argi dago bide guztiak moztuta zeuzkalako hartu dela erabaki garrantz hau. Argi dago, hemen, garaile eta garaitutako batzuk egon direla, sozialki eta pedagogikoki batere ona ez den giroa sortaraziz. Argi dago minbera gelditu dela herriaren zati bat.

Prozesu osoa bi hitzetan esplikatzerik ez dago. Hortaz, laburtu ezin denez, ez gara sartuko he-



Felones jauna Leitzako Ikastolara berriki egindako bisitaldian

men arazo eta borroka luze honen hezur eta mamia azaltzen, gaurkoz.

Bakarrrik berri hau eman: duela 25 urte jaio-tako ikastola, Nafarroako lehenengo eta lehenengoe-tatik bat izan zena, ehun eta piku zituen ikastetxea, Leitzeko ikastola, itxi da, itxi dute, itxi arazi dute, ittoz.

Ormigoiezko bide berriak baserrietara

Nahiko aurreratuta daude baserrietara bide berriak botatzeko lanak. Ez gainera nolanahiko bide berriak: ormigoiezko, zementozko bideak ari

dira egiten, 2,80 metro zabalera eta 15 zentimetro lodi, 25 kilometrotako bideak, hirurogeitamar bat baserrietara, alajaina!

Bestalde, eta menditako larreak hobetzeaz, inoiz bezain gori eta latz dago baserrietara eta Udala-ren arteko katarazka. "Urdola" egin dago, eta "Haritz" mendian nahiko eginxeak garbiketa eta goldetze lanak. Baina itxituekin dago arazo biziena. Lehen mila pikete eta traktore bati su eman bazitzaion, protesta gisa, orain berriro ere alabrezko itxituak txikituta azaldu dira. Bi aldeak ere gogor diraute.

ttipi-flash

Aurrera Futbol

Ekipoak oraingoz Nafarroako Federazioan segituko du, eta ez da Gipuzkoakora pasako. Hala erabaki zen jokalaria eta ekipo arduradunek egindako batzar gogorrean **Aurrera Elkartek** egoitza berria bukatuxea dauka. "Labetxe" berri dotorea udazken hontan inauguratuko dute.

Diru arazoak

izan ditzazke laister Leitzeko Udalak, baldin eta inbertsio berri eta gastuen kontrol zorrotza eramaten ez bada, dio Idazkariaren informea.

Herriarteko Pilota Txapelketan Goizuetarrak irabazle

P.A.

Lehenbiziko aldia ez bada ere, goizuetarrak txapeldun gelditzea azpimarragarria da. Irabazi dutelako, baina herriko bertako pilotariez irabazi dutelako, herri txikia izanik ere. Dena dela, garai-pena neketsua izan zela azin ukatu. Finalean, Iruñeko Labrit pilotaplaiza gainezka, Burlata jokalariek beren balioa erakutsi bait zuten. Pilota kirola herrian lantzen jarraitzea izan daiteke txapel horien ondorerik onena.



Herriko lantegiak gutxitzen eta ttikitzen joan dira

Orain dela urte batzutatik hona, Goizuetan lan egiteko aukera gutxitzen

joan da. Herriko lanpostuak 297taraino iritsi bazi-ren lehen, 87taraino urritu dira. Fabriketan 84 langile aritu dira, gaur berriz 25. Zentraletan 40 zirenak 12tara gutxitu dira. Baso lanetako lehengo 150 lan-

gileak 20tara. Garraioa da beste aldera egin duena: orain 15 eta lehen 8. Tailerretan berdinean segitzen du, 8 eta 8. Baita igeltsero, arotz eta pintore taldean ere. Beste alde-tik, Leitzako Sarriora joa-

ten zen kopurua asko jait-tsi da: 76tatik 26tara. Lehen ez zen Aranoko zer-beza fabrikara dabil-tza orain 8 lagun. Eta gainera-koek Gipuzkoa aldera jo-tzen dute, tailer eta etxe-gintza lanetara gehienak.



Restaurante

DONAMARIAN Ireki berri-berria!

Ohizko jakiak
ukitu bereziekin

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Publizitaterik
onena
preziorik
ttikienean

Deitu 63 11 88
telefonora.

EZKONTZAK

Federiko Arribillaga Danboriena eta **M. Concepción Trebola Zabala**, Etxalarkoa eta Algortakoa, uztailaren 21ean.

Marko Lestucci Sarobe eta **M. Asun Iribarren Etxegia**, Etxalarkoa eta Urrozkoa, uztailaren 28an.

Juan Angel Bertiz eta **Koro Goienetxe Zubieta**, Etxalarkoak, abuztuaren 18an.

Luis M. Leka Zubillaga eta **M. Consuelo Mutuberria Grajirena**, Berastegi eta Leitzakoa, abuztuaren 4ean.

Jabier Iribarren Etxegia eta **M. Jose Bereau Mindegia**, Urrotz eta Errenterikoa, abuztuaren 25ean.

Silberio Mendiburu Martin eta **Bittori Jorajuria Lastiri**, Sunbilla eta Doneztebekoak, abuztuaren 4ean.

JAIO TZAK

Saioa Telletxea Zubeldia, Igantzikoa, abuztuaren 17an.

Gorka Prieto Bellver, Berakoa, uztailaren 6an.

Ekaitz Etxeberria Telletxea, Berakoa, uztailaren 16an.

Ixone Telletxea Uranga, Berakoa, uztailaren 21ean.

Julen Aranburu Berrueta, Etxalarkoa, uztailaren 25ean.

Martxel Rodriguez Etxabide, Lesakakoa, uztailaren 30ean.

Andrea Plaza Garbisu, Lesakakoa, abuztuaren 3an.

HERIOTZAK

Juan Mari Ibarra Maia, Etxalarren, irailaren 1ean, 20 urte.

Maria Bergara, Igantzina, uztailaren 1ean.

Elena Etxarte Elizondo, Igantzina, uztailaren 60 urte.

Constantino Irazoki Goienetxe, Beran, uztailaren 31ean, 80 urte.

Juan Elizalde Irazoki, Beran, abuztuaren 7an, 63 urte.

Gregoria Valverde Torres, Beran, abuztuaren 19an, 98 urte.

Maria Lourdes Bidaurre Eltzaurdia, Beran, abuztuaren 26an, 36 urte.

Juana Irigoien Istilart, Zugarramurdin, abuztuaren 26an, 87 urte.

Ramon Irazoki Arburua, Zugarramurdin, abuztuaren 31an, 88 urte.

Jabier Amorena Lournagarai, Zugarramurdin, irailaren 3an, 18 urte.

Jose Saldias Albistur, Labainen, abuztuaren 25ean, 83 urte.

Joakin Aranguren Diez, Leitzan, uztailaren 21ean, 54 urte.

Martina Galarregi Lournagarai, Leitzan, abuztuaren 12an, 87 urte.

Fco. Tapia Abel, Leitzan, abuztuaren 16an, 67 urte.

ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - **LESAKA**



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK

BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

Bortziriak eta Malerrekan ere, “Euskararen transmisio kanpaina”

Badira egun batzuk Euskalerrri osoko hainbat tokitan, kanpaina honi hasiera eman zaiola eta tartean Bortziriak eta Malerrekaokari ere.

Kanpaina hori zertan datzan? ba, olerkiak erraten duen bezala: “Euskara ez da galtzen ez dakitenek ez dutelako ikasten baizik eta dakitenek ez dutelako erabiltzen”.

Eta zoritxarrez aunitzetan hori da gure artean gertatzen dena, ohiturak direla... lotsak... inguratzen gaituen erdal giroak (udal, banketxe eta zerbi-

tzu publiko gehienak erdaraz funtzionatzen dute. ETB ez da toki guzietan ikusten. Doneztebeko zinemaren erdarazko pelikula ematen dira... etab.) eta gure hizkuntzaren galararen kontzientzi eza ere tartean dugularik, guk ez bait diegu gure gurasoek transmititu izan ziguten bezala geure seme-alabei euskara era berean transmititu.

Beraz kanpaina honen helburua hau izanen litzateke: Familia eta lagun arteko Euskararen transmisioa bultzatzea!!

Kanpainaren edukiak:

Alde batetik kartel eta informazio liburuxken banaketa, bertetik hainbat egunkari eta irratitan azalduko diren artikulak (mankomunitateetako euskaldun zahar eta berri batzuei egindako elkarrizketak) eta azkenik gurasoei zuzendutako hainbat eskeintza: gurasoak bait dira etxeko giroa euskalduna mantentzeko edo euskaldun bihurtzeko beharrezkoak!!

Hortarako eta hilabete honetan zehar, herriz

herri eginen diren batzarretara gonbidatuko zaituztegu bertan aukera izanen duzuelarik euskara ikasteko, alfabetatzeko edota praktikatzeko ikastaroetan parte hartzeko (apropos antolatuko diren ikastaroetan)

Beraz eta aldeaz aurretik eskerrak emanez, deibat egiten dizuegu guraso eta biztanle guzioi kanpaina honetan parte hartzeko!!! Eskerrik aunitz!!!

Bortziriak eta Malerrekaok
Euskara Zerbitzuak

Bertso batzuk Zalaingo bideari

(Doinua: Arratsaldeon lehendabizitik)

Gure auzoan eska genuen konpontzeko den bidea, urte pare bat pasatu da ta galdu dugu bai fedea. Berriz zaborra ekarri dute hau ez zen gure idea, presupuestua onartu zen ta zergatik jarri epea.

Jai aurretikan hola erran zun hemengo Alkate Jaunak bide horrela aurkitzen bada, gu garela kulpak dunak. Orain artean auzo lanetan konpondu degu lagunak berriz zulatzen ari da hemen pasatu ala egunak.

Orain sei urte etorri ziren aldatu nahirik bidea, fabrikaren orde, Udal Etxetik agerturik jendea. Proiektu batzuk zuten orduan naiz orain izan berdea, zergatik hainbat buelta eman norentzat da mesedea?

Hemen ehun metro konpondu baino nahiago bidez aldatu fabrikaren zai egonez gero egingo gera nardatu. Bide berri bat egin nahi dute guk duguna ez moldatu ta zenbat urte pasako dira ezin bai gera fidatu.

Orain badakit zer pasako den konpontzeko naiz eskatu aspalditikan zai gaudelako gu egin gera kezkatu. Botxotik LAN-era artian bide berria bulkatu ia lehen bait lehen hasten diren ta alden azkarren bukatu.

Herri Etxeko jendiak badu gauza batzutako burua fabrikari hor komeni zai bidea da segurua. Kriston denbora zai egon gara konpontzeko ingurua aizu non dago Diputazioak bidalitako dirua?

Gure auzoko jendia ez da oraindikan errenditu Udal Etxekuk fabrikakin hor ongi nahi dute gelditu. Potrotaraino gaudelako gu zinegotziak aditu behintzat zergak denak bezela auzoak ordaintzen ditu.

Herrian diren auzo guztitan konpondutako kontua Zalain auzoan zagon bezala negargarritzko tratua. Udalak utzi fabrikari hor egiten bere gustua berriro ere etorko dira eskatuz gure botua.

AGERTU behar dugun gaia zenbat eta ezagunagoa izan, orduan eta zailagoa bihurtzen zaigu. Gure eremu honetan, nork ez du entzun Arkupeak Elkartearen izena? Entzunez gero, nork ez du imajina bat prest, hau, hori edo hura dela erabakitzeko?.

Merkatuan kontraesanez edo guztiz etsai diren irudiak daude salgai:

- Jubilatuak harat eta honat paseatzeko sortutako zerbait,
- Jubilatuen arazoak konpontzen saiatzen den erakundea,
- Jubilatuak besteengandik bereiztu nahi dituen elkartasuna,
- Jubilatua bakardadean eror ez dedin zubiak eraikitzen duena,

... Jubilatu elkartuekin topatu garela garbi dago! Ez dira jubilatu guztiak!!! Seinale ona: Bortxan ez direla ari, agian!

Arkupeak, batasunaren eredua





ANIMAZIO eta juergarako aitzaki bat besterik ez da!!! Posible balitz ez legoke batere gaizki. Joku beharra giza-ezaugarria omen dugu; haurrak jostatuz ikasten dute eta edozein adineko giza-semek libertitzeko beharra du. Arkupeak juergarako balitz soil-soilik, arazorik ez dagoela frogatuko luke. Hola balitz, hau poza! Ez genituzke mota askotako asistentzi hutsuneak salatzen topatuko egun jo ta ke dabilzan lekuetan.

Lau mandamasen alorra da!!! Betiko leloa! Lau mandamas horiek kriston lana egiten dute, eta, antolamendua, mantxarrik gabea dirudi; Herri bakoitzeko delegatuak —biztanleen arabera hautatuak— arazoak eztabaidatzeko bileretan batzen dira. Hortaz aparte urtean zehar bilera orokorrak egiten dira, baina, are gehiago, sozioen kexarik ez da entzuten. Hobe zina ez dela? Saia zaitez hobetzen. Hobetzea izanen dugu, gerokoek, desafioa.

Guzti hori errana, seguraski, Arkupeak-koen laudorioak egitera ez

naizela etorri argitu beharra dago. Bere esperientzia probextera bai, hori bait da tradizionalki zaharrek eskeini dutena.

Esate baterako, nik, pertsonalki, ez nuke amerikanoak ekartzeko egiten ari diren lana eginen. Euren erabakia izan da, dena den, su ta gar ari direlarik, eta erabakia hartuz gero... nere errespeto guztiak. Hori bai, adibidea hagitz aproposa dugu, bere antolamenduan Elkartearen ezaugarri interesanteenetariko bat azaltzen bait du: Herrikeriak gainditzeko asmo eta gogoia. Horrela, Ayuntamientotara diru edo laguntza eske hurbildu direnean, ez dute herri bakoitzeko «amerikanuekin» jokatu, alderantziz baizik. Zonaldeko kopuru bat eman dute, hemengoa ala hangoak diren bereiztu gabe, lokalismoetaz baliatu gabe. Horrexegatik *Arkupeak batasunaren eredua* dugula diot.

Donezteben jaio zen Elkartea hau —pauso ugari denbora laburrean emateaz aparte— arrazoiak erakusten duen bideari lotu da. Ezkurran, Urrotzen, Sunbillan edo Arantzan jubilatuek antzeko arazoak baldin

badituzte, dituzten bezala, herri bakoitzak bere aldetik aritu beharrean bilkura antolatu, tratu berdina eman ez. zonaldeko kontzientzia sortuz hedatu da. Ez da menpekotasunarik eraiki eta ohizko mugak gaindituz Bortziriak, Baztan eta Malerreka batu ditu.

Zentralismoan erori gabe herri bakoitzean bertako delegatuak mantentzen ditu. Elizondorrek edota Bera tarrek ez dute Azpiikuetako edota Gaztelukoek baino eskubide gehiago, indar gehiago, indarkerian ez bait dira aritzen. Helburua, guztientzat zerbitzu berdinak lortzea bait da. Laguntza behar duten adinekoen kasuan, esate baterako, posible den denbora luzeena etxe eta herrian bertan mantentzea nahi dute, etxe-asistentzia indartuz. Erresidentzia nahitahiezkoa egiten denean, hurbilago izan dadin, gaur egun daudenetaz aparte Donezteben eraiki beharko litzatekeenarekin osatuz.


Hango edo hemengo jende ala Ayuntamentuarekin topo egin badute ere, euren ustez laguntza eskas eta traba ugari jaso dute. Hala ere, tentsio momentuak baztertuz zonalderako plangintza bulkatzen saiatzen dira. Denboraren pasatzearekin batera etortzen badira ere —laister jubilatuek biztanlegoaren gehiengoa izanen direlako— egin duten lana ukatzerik ez dago, eralgi duten sasoi eta borondatea fruituak ematen ari dela are guttiago.

Egina dena egina denez, zorionak!; gelditzen den pilarako, animoak!; tarteko ezadostasunek haserrea sortzen badute, ikasi eta barkatu! ...Zonalderako batasunaren eredua ez bada hauxe, zer arraio izanen da? Zinez diot; ez naute erosi!

JUAINAS

Biktoriano Artzuaga: Nekazari, txertari, harigile..., mila ofizio duen gizona

Santio eta Santanetan eguraldi sargoria eta trumoitsua egin ohi du normalki, eta aurten ere guttiago ez izateko, halakoa ari zuen Urrotzera Biktorianorekin solasteko asmoz hurbildu garenean. Halere, ez dugu etxean aurkitu gure asmoa zen bezala, urteetako usadio zaharrari jarraituz Doneztebera meza entzun bidenabar afaltzera joana dela erran baitigu bere ondoko etxean bizi den auzokideak. Jakina, bizi guzian Santio eguna besta egitera ohituak direnentzako nahiko zaila egiten bait zaio ulertzea, lehen egun horretan lanegiten pekatu mortala zena orain deus ez dela gertatzen erraten dutenean. Gu ere Doneztebera jaitsi gara eta hantxe aurkitu dugu Biktoriano, meza ordua iritsi arte denbora egiten zerbeza edan bidenabar. Harigile, nekazari, txertari eta eguraldiaren gora beherak ere asmatzen ahalegintzen den gizona da Biktoriano eta denbora berean solastun aberatsa. Bete berriak ditu hirurogeita bortz urte eta pozik aurkitzen da, orain hazindak kendu eta lan gutxiago eginez bizitzeko asmoa bait dauka.



nola hasi zinen haria egiten?
A m a t x i z e n a r e k i n ikasi nuen nik gaztetan. Gero urte batzu izan dira fabrikak hasi zirenak galtzerdiak egiten, baina ez zuten zapinarik egiten eta guk egiten genituen etxean. Urtean hamarren bat dozena kilo ardile erosten ditut eta horiekin egiten dut haria. Ardileak erdia galtzen du garbitzen eta gero hoberenarekin egin behar duzu. Horregatik galera haundia du. Normalki nik

haria egiten dut eta gero hura saldu, nahiz eta batzutan zapinak ere saltzen ditudan. Lehen zapinak arrebak egiten zituen eta orain auzoko batek.

Herriz-herri ere ibiltzen zara eskulana erakustaldietan...

Bai, dei egiten diguten herrietan ibiltzen gara. Gasolina eta mantenua ordaintzen digute eta sos batzu jaso ere bai batzutan eta horrela ibiltzen gara. Ez du kontu haundirik baino nola denbora pasa ibiltzen garen, ba... ongi.

n

Horretaz aparte, fruitarbolentxertuan ere aritzen zara...

Bai, horretan ere sartzen dut "muturra". Badira txertu mota bat baino gehiago. Txertu mota bat bada abuztuaren azkenaldera eta Irailaren hasieran egiten dena baina ni udaberrian aritzen naiz.

Gaztainari axaletik jartzen zaio mota eta gainerako fruitondotan berriz lehertuta mota erdian jartzen zaio. Ondoren dena ongendu batekin estaltzen da. Ongendu horrerik "betun injertada" deitzen diote eta kilo bat pikia, kilo bat erresina, bi kilo bilkorra aretxina eta "cera virgen" elkarrekin nahastuta osatzen da.

Ongendu horrek balio du zauriak sendatzeko ere. Generalean txertuak ino- teko hilberan egin behar dira, baino sagarraren txertua hogeiren bat egun beranduago egin daiteke.

Haziak ereitea eta landareen landaketari buruz zer erraten ahal diguzu?

Bueno, normalean materiala emateko gauzak hilberrian erein behar dute eta kosetxa ematekoak berriz hilberan.

Patata berriz hilberrian ereiten baduzu larriagoa aterako zaizu hilberan

oiz erein?

Ba, egurra ematen duten landareen haziak hilberrian erein behar dute eta kosetxa ematen dutenak hilberan

ereinda baino.

Landareak berriz udaberriaren arabera landatu behar dira. Goiz heldu bada lehenxiago eta bertzela beranduxiago.

Ezpela, berriz, San Anton inguruan eta hilberan landatu behar da. Arbolak botatzeko berriz, pagoak hilberrian bota behar dira eta haritzak hilberan. Alderantziz eginez gero

material beltza ateratzen da eta sutan jartzerakoan mukia dariola ariko zaizu.


Lehen aipatu diguzu betidanik hemen, base- rrian bizi izan zarela. Aldaketarik sumatzen al duzu zure gazte denbo- ratik gaur egungo bizi modura?

Bai, izugarri aldatu da! Gure gazte denboran astuak bezala aritzen ginen lanean. Beti bizkarka, argiarekin batera hasi eta ilunarekin ezin bukatuz.

Gaur makinak badira eta lana aisago egiten da. Gainera, garai batetan ez genuen bi sosik ikusten eta gaur ez duzu gazte bakar bat bera ere arrautuko sakelerako dirurik ez duenik. Jendeak "zaharpartea" ere kobratzen du eta hori gauza ona da.

Tenporari buruz eta bertze zenbait gauzetaz ere hitzegi genuen gure solasalditxoan, baino guziak bi orrialdeetan agertzea ezi- nezkoa da.

Beraz, honetan uzten dugu oraingoz. Eta zuri berriz, Bittoriano, Jubila- zio atsegina opa dizugu bihotz-bihotzez.




«Patata hilberrian ereinez gero larriagoa ateratzen da hilberan ereinda baino» dio Biktorian Artzuaga-k

PATXI LARRETKEA

Donezteben Bizkaitarrak garaile

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolakuntza bikaina agertu zuen



Giro ederrean ikusi zituzten probak Euskal Herriko txoko guzietatik Doneztebeko Pilotaplazara hurbildu ziren lagunek. Goizean erdi-finalak eta zenbait ikuskizun erakusketa gisan. Arratsaldeko 5etan hasi eta ia ilundu arte, finalak.



Guztira 200en kirolari aritu ziren egun osoan zehar

Nafarroako Herri Kirol Federazioak eskerrik beroenak lan egin zuten guztiei

Nafarroako Herri Kirol Federazioak eskerrik beroenak eman nahi dizkie Donezteben Irai-laren 2an ospatu zen Euskal Herriko IV. Herri Kirol Txapelketaren antolaketa lanetan aritu ziren guztiei.

Hiru hilabete bertzerik duen Federazio honen, errebalida haundi bat pasatu beharra zeukan Txapelketa hau antolatzerakoan; bai aurrekontu aldetik nola antolaketa aldetik ahalegin haundia suposatzen zuen denentzat.

Behin eguna pasatu

ondoren bi gauza aipatu beharretan gaude: Lehen, antolaketa lanetan aritu diren jendearen gogo eta erresponsabilitatea izanen litzateke eta bigarrena, jende gaztea antolatzaile gisa ikus-teak eskeintzen digun etorkizun itxaropentsua.

Horrela bada esker mila aunitz guztioi eta etorkizunean segi dezagun denon artean gure Herri Kirol hauek haur, gazte eta heldu mailan bultzatzen.

Nafarroako Herri Kirol Federazioa.

EUSKAL HERRIKO IV. HERRI KIROL TXAPELKETA - DONEZTEBE

Sailkapen orokorra herrialdeka

TALDEAK	640 K.	Pisu librea	Ingudea	Zakuak	Orga	Txingak	Lastoa	Harri jasot.	Trontza	Aizkora	OSOTARA
Bizkaia	7	7	7	3	7	5	6	7	5	5	59
Gipuzkoa	3	4	3	7	2	7	5	6	6	7	49
Lapurdi	5	6	2	4	6	3	7	2	4	3	42
Araba	6	3	4	2	1	4	2	5	7	4	38
Nafarroa	4	1	5	1	5	6	1	3	3	6	35
Zuberoa	1	2	6	5	3	1	5	4	2	2	31
B. Nafarroa	2	5	1	6	4	2	3	1	1	1	26

Datorren urteko ekitaldia Araban izanen da

Bortziriak, Baztan, Malerreka eta Leitzarano eskualdeko igerilariak Nafarroako Txapelketan hirugarren gelditu

ANTTON

Abuztuaren azken igandean, Bortziriak, Baztan, Malerreka eta Leitzarango neska-mutiko eta guraso franko elkartu zen Leitzako piszinetan, eskualdeko Igeri kanporaketa aitzaki. Kanporaketa bat baino, topaketa bat antolatzen zen, arduradunen hitzetan, kirolak ere elkar gaitzake herriok.

Lehendik zonaldeka egin zegoen kanporaketa. Leitzan, eskualdeko neska-mutiko igerilari hoberenak elkartzen ziren, handik Nafarroako txapelketarako hautaketa egin asmoz, Olaztirako.

Lau estilotara: *mariposa*, *sorbalda*, *braz* eta *kroll*, errelebotara eta australianora aritu ziren. Saio politak eta denetatik pixko bat ikus ahal izan genuen: kirola, lehia, pikeak, tx-

loak eta protesta batzuk ere, epaileek okertxiki bat izan bait zuten, beratar baten kaltetan eta leitzar baten onerako.

Bortziriak (beratarrak) nahiko erraz eraman zuten txapela. Puntutan ezik, txaloka eta animatzen ere beratarrak izan ziren hoberenak Leitzan.

Olaztiko finaletan aipagarri Baztan-Bidasoa-Leitzarango ekipoa hirugarren gelditu dela Nafarroako txapelketan. Izenak ematekotan, aipamen berezia merezi du Iosu Ganboa, Leitzako alebinak, lehenengo izan bait da kroll, braz eta australianoan, hirutan. Eta Ines Barbarena, baztandar neskatilak, honek ere lehengo postua lortu bait zuen sorbaldan edo espaldan. Iker Bengoetxea (Leitza) hirugarrena izan zen ere mariposan.



Leitzarango ekipoa



Malerrekako ekipoa Leitzako kanporaketan



Beratarrek izan zuten nork txalotu eta animatu.



Leitzako kanporaketan, Beratarrek hoberenak puntutan

Zenbat edaten dugu?

Bidasoako bailara aunitz, agian gehiegi edaten den eskualdea da.

Egunero edaten duten pertsonetako aunitz ez dira mozkortzen eta ez dute arazo seriogirik izaten alkoholarekin, baina luzera, bere osasuna ondatzen da, alkoholak gorputzari kalte egiten bait dio.

Maiz xamar, alkoholak gibela, nerbioak, zirkulazioa eta bihotza ondatzen ditu.

Inortxok ez luke egunean litro erdi bat ardo edo bertze edaria bada graduatan neurri honetatik pasatzen den guztia osasunaren kalterako da.

Bidasoako ibaian 1.000 edota 1.200en bat pertsonak gehiegi edaten dutela eta 600en bat alkoholiko direnaren berri badugu.

NAFARROAKO
OSASUN
MENTALEKO
TALDEA



ARROPA ETA OPARI DENDA

Mercaderes 9
DONEZTEBE

PIZZIO OSTATUA

Tfnoa.: 63 07 88
Altzate - BERA



SUKALDE ALTZARIAK
Legia, 42 Tfnoa: 63 03 77 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA
KONPONKETAK



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 055 98
BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ARO BERRIAREN ATARIAN

Horoskopoa

Leo,... “lehoia”

Lcoren mitoa Nemeako lehoitik dator, aski larri gogorrekoa. Hercules berarekin borrokatu eta hil egin zuen, borrokan behatz bat galdu zuelarik eta lehoiaren indarra eskuratu ere.

Leo arketipoa

Segur aski ezagutzen ditugun leo gehienak antolatzaile onak direla, agintzaile joerarekin, eta sarritan koadrilako buru ere bai. Baita burugogor fama ere izaten dute.

Bortzgarren zeinua, leo, fijoia, positiboa eta suzkoa da. Lehen erran dugun bezala, *suak* adierazten duen energi horrek ematen digu geure pertsonalitatearekiko konfidantza, entisiasmoa, adorea eta abar.

Ba Leok horretik dauka, eta gainera fijasunakin. Itxura noblea, independentea eta dignoa hartzen du; eta positiboa denez, autoafirmatzen da. Kalitate hauek gaizki era-



biltzen baditu, orduan orguiloso eta arrogante azalduko zaigu.

Leok beti liderra, erregea eta atentzioren zentroa izan nahi du, eta gaineoak ez badute onartzen edo bere

balioa ez bada estimatzen, Leok alde egingen du. Hau bestek banitate edo arrogantzi bezala interpretatzen dute baina beretzat bikain jokatzeari bertzetik ez da, errenkura eta azpijo-

korik gabe.

Beti atentzioren zentroa izan nahia horrek espektakularren zentzua ematen dio Leori; horregatik Leok itxura —janzkera, orrazkera—, aunitz zaintzen du. Leo harrapatzen badute rulokin edo “melena” urratuakin, aski disgustu handia eramaten du. Gainera nahiko teatrala da, akto-reak bezala egoerak dramatizatzen ditu.

Uda Min-minean

Leorekin uda erdi-erdian gaude. Aurten uztailaren 23tik abuztuaren 22raino egonen da eguzkia Leon. Eguna Cance-rrerkin baino pixka bat laburragoa eta beroagoa izaten da. Zenbait fruituren uza ia eginik dago, gehienak bere forma hartu dute. Ez da Cancerrekin genuen nolabaiteko promesa bat, baizik eta lurraren ekoizpenak gauzatzen dira. Leorekin afera sinplea eta erraza da.

Eta beranduegi bada ere, Zorionak Leo guztiei!

FERMIN ALTZUGUREN

ZAROS

Tfnoa: 63 11 38
Pilota Leku ondoan BERA



Legia 11 - 63 06 64 BERA

BEATRIZ

Lurrin denda

SANTIAGO 53 - Tfnoa: 5802 83 - ELIZONDO

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

•**Lesakan pisu bat** alkilatzen dut. 23.000pzta. Tfnoa. 450054

•**Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa. 637410


•**Beran pisu bat** alki-latzen dut. 25.000pzta. Tfnoa: 450054

•**Partikularretik partikularrera**, bizilekuz aldatzeagatik premiazkoa da pisua saltzea. Donezteben, Amaiur Sukaldean goian. Tfnoa: 450054.

•**Beran**, 3 logela, egongela, bainua, sukaldea eta despentsa duen pisu baten berri ematen dut. Erdi erdian, Legia karrikan. Tfnoa.: 450054

Lana

•**Iruñean** neska euskalduna behar dugu Irailetik aurrera orduka etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. Telefonoa 255121. Amaia Zubieta.



•**OHO klaseak** ematen ditut euskaraz. EGA titulu daukat. Tfnoa. 637136 Lesaka.

•**Bi neska gara** eta herrietako festetan lan egiten genuke; tabernetan, jatetxetan, etxeko lanetan, e.a. Deitu telefono hauetara: 510220, 610789

•**Frantzes klaseak** Silvia Mazizior-ekin. Tfnoa: 630108

•**Neska euskaldun bat** behar da Etxalarren, haur bat zaintzeko. Irailetik aintzinerara. Deitu 9etatik 10etara 635150 tfnora.

•**22 urteko neska** eskeintzen da edozein lane-tarako. Deitu 637095 tfnora.

Salerosketak

•**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Deitu 631188 telefonora.

•**Tijuana in Blue** ren diska bat saltzen dut (sopla, sopla) 1.000 pzta. Deitu 581039 tfnora

•**Pigini** markako akordeoi bat daukat salgai. 90 bajo eta 5 erregistro ditu. Deitu 637818 tfnora.

•**1.700 litroko zister-na** berria saldu nahi dut. Trakzioduna eta merkea. Deitu Zigako 581023 tfno-

•**Mountain bike** Peugeot VTT Ozean Spres saltzen da. 60.000 pzta. Tfnoa: 63 07 51.

Denetarik

•**Trikitixa eta panderoa** jotzen ikasi nahi al duzu? Guk irakatsiko dizugu Sunbillan. Josune eta Ainhoa. Deitu aste tartean (943) 625048 telefonora.

•**Ekipoak alokatzen dira** Udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

Harremanak

•**Carabanchel-eko Joxeluri**: zure askatasuna eta preso guztien askatasunaren alde borrokatuko dugu. Jo ta ke irabazi arte. Lesakako lagunak.

•**Eskuminak** ematea gustatuko litzaidake bihotz-bihotzez. Doneztebe. Ituren eta Igantziko Benetako nire lagun guziei, eta bereziki Garbiñe Leizari. Olatz, Elorrixotik.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....
.....
.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA



			Eztia	▼	Pilotan ari- izeko tresna	▼	Niri, da	▼	Potasioa
			Hitzak		●		●		
			▶		▼		▼		▼
			Belardi	▶					Janak eta edanak
			●						
			▶						▼
●	▼	●	Kanpo	▶		Bokala	▶	Berrogei- tamar	▶
Toka, dut			Kontsonan- tea			Ipun ategorikoa		Deialdi	
▶		▼		Zamari	▶			▼	
				Ase					
Nor'en kon- tsonanteak	▶		Itsas ugaztunek	▶	▼				
Fruitu mota			Rutenioa						
▶			▼		Gezurra ez dena	▶			
					Bazter				
Almanaka	▶				▼			Kontso- nantea	▶
Goratu								●	
▶			Gaiso	▶			Urrea	▶	▼
			Modu atzikia				Ñaño		
... egina, mozkortuta	▶		▼	Siberiako oihan mota	▶		▼		
Dago				Lehen eta azkenekoa					
▶		Joan den urtean	▶	▼		... egin, pilo- tak oker jo	▶		
		Euskara titulua				Informazio unitate			
Baztango herria	Bokala	▶	Azkenekoa	▶	(Errep.) Pil pil	▶	▼		Joan aditzaren erroa
	Berrogeita bederatzi	▼	Ez eme		Egile atzikia				
▶	▼		▼	Kapazitate neurri	▶	▼			▼
				Röntgen					
●	▶		▼						

● Euskal Herri Kirol Txapelketan Nafarroako taldean parte hartu zuten partaideak (soka-tirakoak izan ezik)

Euskarak batzen gaitu



ika

AKEL ARRE